

## **JANTOKIKO DIZIPLINA ARAUAK – DBH**

### **HUTSEGITEAK ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK**

Zerbitzuaren garapen zuzena oztopatzen duen edozein ekintza hutsegitea da. Hutsegiteak hiru multzotan sailkatzen ditugu : arinak, larriak eta oso larriak. Hutsegite arinak hiruhilabeteko batean zenbatzen dira; hurrengo hiruhilabetekoaren hasieran zenbaketa zerotik hasten da. Hutsegite larriak eta oso larriak direnak kurtsoan zehar pilatzen dira.

#### **FALTA ARINAK**

- Kasurik ez egitea, gaizki erantzun edo sukaldeko eta jantokiko langileekiko begirune hutsegite arinak
- Ikaskideekiko begirune hutsegite arinak
- Jantokira sartzean edo bertatik ateratzean korrika ibiltzea, elkar bultzatzea, edota oihukatzea
- Ez baimendutako objektuekin (mugikorak, mp4, kontsolak ...) jantokira sartzea
- Lekuz aldatzea baimenik gabe
- Zuzenki ez jatea
- Ozenki hitz egitea, besteak molestatuz
- Ikastolako materiala, nahita edo gaizki erabiltzeagatik, apurtzea edo hondatzea
- Janariarekin jolastea, elkarri botatzea
- Pertsonetikiko begirunearen kontrako edo pertsonen duintasun edota osasunean arin eragiten duen edozein jokabide

#### **NEURRI ZUZENTZAILEAK**

- 2 hutsegite arin: guraso/tutorei idatziz jakinaraziko zaie
- 4 hutsegite arin: guraso/tutorei idatziz jakinaraziko zaie eta jantokiko langileek, egindako hutsegitearen arabera, ondoko neurriren bat aukeratuko dute:

- Astebete batez bere taldetik bananduta jango du, mahai batean bera bakarrik.
- Hiru egunez atsedenaldirian jolasteko eskubidearen galera
- 5 hutsegite arin (hutsegite larri bat): guraso/tutorei idatziz jakinaraziko zaie eta jantokitik egun batez kanporatuta
- 8 hutsegite arin: guraso/tutorei idatziz jakinaraziko zaie eta jantokitik 3 egunez kanporatuta
- 10 hutsegite arin: guraso/tutorei idatziz jakinaraziko zaie eta jantokitik astebete batez kanporatuta
- Hutsegite arin bat gehiago eginez: guraso/tutorei idatziz jakinaraziko zaie eta jantokitik hiruhilabeteko osoz (edo gelditzen denaz) kanporatuta

#### HUTSEGITE LARRIAK (Metatzen direnak) /

- 5 hutsegite arinen metaketa
- Jantokiko edo sukaldeko langileei larri kasurik ez egitea
- Jantokitik baimenik gabe ateratzea
- Janaria lurrera edota beste ikaskideei asmo txarrez botatzea
- Ikaskideen arteko eraso fisikoak edota irainak
- Pertsonetikiko begirunearen kontrako edo pertsonen duintasun edota osasunean larri eragiten duen edozein jokabide

#### NEURRI ZUZENTAZILEAK (Metatzen direnak)

- Hutsegite larri bat : guraso/tutorei idatziz jakinaraziko zaie eta jantokitik egun batez kanporatuta.
- 2 hutsegite larri: guraso/tutorei idatziz jakinaraziko zaie eta jantokitik aste batez kanporatuta.
- 3 hutsegite larri: guraso/tutorei idatziz jakinaraziko zaie eta jantokitik hilabete batez kanporatuta.
- 4 hutsegite larri: guraso/tutorei idatziz jakinaraziko zaie eta jantokitik BEHIN BETIKOZ kanporatuta

### HUTSEGITE OSO LARRIAK

- 4 hutsegite larrien metaketa
- Jantokiaren ordutegian ikastolatik baimenik gabe ateratzea
- Pertsonetikiko begirunearen kontrako edo pertsonen duintasun edota osasunean oso larri eragiten duen edozein jokabide ( Bullying, behin eta berriz eraso edota iraindu...)

### NEURRI ZUZENTZAILEAK

- Hutsegite oso larri bat: guraso/tutorei idatziz jakinaraziko zaie eta jantokitik hilabete batez (4 astebetez) kanporatuta
- 2 hutsegite oso larri: guraso/tutorei idatziz jakinaraziko zaie eta jantokitik BEHIN BETIKOZ kanporatuta